



## GETXOKO UDALEKO GAZTERIA ZERBITZUAREN 2023ko

### MARRAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

#### **ANTOLATZAILEA**

Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzua.

#### **XEDEA**

Lehiaketa honen helburua bikoitza da: alde batetik, hautatutako irudia oinarri izango da Gazteria Zerbitzuak sustatzen dituen komunikazio- eta publizitate-kanpainetarako, eta, bestetik, 14 eta 30 urte bitarteko biztanleen artean (biak barne) sormena eta parte-hartzea sustatzea, marrazkia bait da beren emozioak, sentimenduak eta mundua begiratzeko edo ulertzeko modua adierazteko arte-adierazpen errezenetarikoa.

#### **GAIA**

Lehiaketako gaiak eta marrazkiak estilo librekoak dira, baina marrazkiak bat etorri behar du Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearekin. Ez dira kontuan hartuko konnotazio oldarkorrak dituzten lanak, kolektibo jakin baten sentsibilitateari kalte egin diezaioketenak edo pertsonen duintasunari eraso egiten diotenak.

#### **PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Getxon erroldatuta dauden 14 eta 30 urte bitarteko pertsona guztiek parte har dezakete.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 diseinu aurkez ditzake.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta gazteria zerbitzuak egin ditzakeen aldaketak ezagutzea eta onartzea dakar.



## AURKEZPENA

Parte-hartzaileek askatasuna dute nahi duten teknika erabiltzeko (bereizita edo nahastuta; eskuz edo digitalki; arkatzak, argizariak, tenperak, akuarela, "collage" teknika, etab.). Lan argitaragabeak izan behar dute, eta inongo webgune, sariketa edo bitarteko digital edo eta inprimietan saritu gabekoak. Kontuan hartuta diseinua hainbat euskarri eta materialetan erreproduzitu beharko dela, artxibo digitalean aurkeztuz gero, jpg, psd, eps edo ai formatua izan beharko du, gutxienez 300 X 300 pixeleko bereizmenarekin (ahalik eta bereizmen handiena gomendatuz) edo paperean. Originaltasuna eta kalitatea baloratuko dira.

## BIDALKETA

Formatu digitaleko proposamenak helbide elektronikoa bidali behar dira: [gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) . Mezuaren gaiari "Gazteria Zerbitzuaren marrazki-lehiaketa" agertu behar da. Mezuaren gorputzean edo dokumentu batean, marrazkiaren diseinuari emandako izena erantsi beharko da harremanetarako telefono batekin. Marrazki bat baino gehiago badira, izen bat marrazki bakoitzeko. Paperezko formatuan aurkeztutako proposamenak gazte-bulegoetan aurkeztu beharko dira Getxoko Urgull kaleko 4, 2, 48991 (Algorta), 09: 00etatik 14: 00etara. Aurrez aurre aurkeztuz gero, eman helbide elektronikoa bat ere.

Marrazkiak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 6tik 30era bitartekoa izango da.

## EPAIMAHAIA

Gazteria Zerbitzuko teknikari arduradun batek eta arte-arloko profesional batek osatuko dute marrazketa irabazlea aukeratuko duen epaimahaia.

## SARIA

Aurkeztutako diseinu guztien artean, epaimahaiak 1. diseinu irabazlea aukeratuko du eta baita 2. eta 2. erreserbak. Irabazleak 500 €-ko balioa duen bale bat jasoko du (BEZa barne), eta bigarren sariak 150 €-ko txeki bat jasoko du (BEZa barne), bale biak Getxoko edozein saltokitan kontsumitzeko dira.

## PERTSONA EDO ERAKUNDE IRABAZLEARI JAKINARAZTEA





Epaimahaia bildu eta gehienez 15 eguneko epean, antolatzaileek telefonoz edo aurretik emandako posta elektronikoz bidez jarriko dira harremanetan sariaren berri emateko. 48 orduko epea izango du, lehen kontaktua egiten denetik, lortutako saria, idatziz, ukatu edo onartzeko. Saria onartzeko, izen osoa, telefonoa, NANA eta helbidea aurkeztu beharko dira.

Irabazleekin emandako telefono zenbakiaren edo posta elektronikoen bidez harremanetan jartzerik ez badago, edo saria onartzen ez bada, hautatuen zerrendan hurrengo postua betetzen duen parte-hartzailearekin harremanetan jarriko da, aurreko prozesu bera jarraituz, eta lehen erreserba horrekin harremanetan jartzerik ez balego, zerrendako bigarren erreserbarekin saiaturiko da, aurrekoen baldintza berberetan.

Irabazleetako batek ere ez badu saria onartzen edo ezin bada inorekin harremanetan jarri, lehiaketa hutsik geratuko da.

### **EGILEAREN ESKUBIDEAK, ADOSTASUNA ETA ESKUBIDEEN LAGAPENA**

Aurkeztutako diseinuak ez zaizkie inola ere egileei itzuliko. Lehiaketan parte hartzean, parte-hartzaileek baieztatzen dute beren lana originala eta individuala dela, bera dela lanaren jabe bakarra eta ez dagoela beste jaberik, aurkeztutako obraren copyright-a edo marka erregistratua duela, eta ez duela inolako jabetza industrial edo intelektualeko eskubiderik aurkeztutako obraren gainean.

Gazteria Zerbitzuak ez du erantzukizunik hirugarenek jabetza intelektualaren edo industrialaren gaineko eskubide urratzeaz egindako demanda edo erreklamazioen aurrean. Parte-hartzaileak jabetza intelektualaren arloan indarrean dauden legez-dapenak eta norberaren irudirako eskubidea betetzeaz arduratuko dira, eta erantzukizunez deklaratu dute Getxoko Udaleko Gazteria Zerbitzuak (Gizarte Kohesioaren Arloa) saria eta/edo Gazteria Zerbitzuaren proiektuak eta kanpainak zabaltzeko zehazten dituen komunikabide eta euskarri guztietan obra zabaltzeak edo erreproduzitzeak ez diola kalterik egingo ez lehiatzaileari ez hirugarrenei.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Gazteria Zerbitzuari lagatzea aurkeztutako obrak erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean jakinarazteko eta eraldatzeko eskubideak, jabetza intelektualari buruzko legerian aurreikusitakoaren arabera, edozein euskarri fisiko edo digitaletan erabiltzeko.

### **OBREN JABETZA**





Aurkeztutako obra guztiak Gazteria Zerbitzuaren jabetza eskusiboan eta iraunkorrean geratuko dira, eta hark askatasun osoa izango du obra guztiak osorik edo zati batean erabiltzeko edo beharrezkotzat jotzen duen unean eta moduan aldatzeko.

Gazteria Zerbitzuak edozein formatutan erabili ahal izango ditu aurkeztutako lan guztiak, eta haren argazki- eta dokumentu-funtsaren parte izango dira. Gazteria Zerbitzuak nahi dituen hedabideetan zabaldu ahal izango ditu (web, twitter, Facebook, erakusketak, liburuxkak... edo beste sare sozial batzuk).

Gazteria Zerbitzuak beretzat gordetzen du saritutako obra aldatzeko eskubidea, inprimatzeko zailtasunak izanez gero, eta hasieran ez zeuden logotipoak edo testuak sartzeko eskubidea.

## **DATUEN BABESA**

### **DATU PERTSONALAK, IRUDI-ESKUBIDEEN BAIMENA**

Parte-hartzaileen datu pertsonalak Getxoko Udalaren ardurapeko "GAZTERIA JARDUERA ETA ZERBITZUETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA" tratamenduan sartuko dira (Foruen kalea 1, gazteria@getxo.eus) eta hainbat ikastaro eta tailer, hiri-udaleku, txangoak eta aisialdiko, kiroleko, kulturako edo prestakuntzako jarduerak egitea du helburu. Tratamenduaren oinarri juridikoa interesdunaren adostasuna eta legezko betebeharrak betetzea da, eta zerbitzuren bat esleitzen zaien erakundeei (hiri-koloniak, gaztelekuak, gazteentzako informazio-bulegoa), aseguru-erakundeei eta osasun-erakundeei laga ahal izango zaizkie. Gainera, interesdunaren eta/edo haren legezko ordezkariaren alde aurreko baimenarekin, argazkiak edo irudiak sare sozialetan, bideoetan, webguneetan eta Gazteak gehigarrian argitaratu ahal izango dira.

Titularrak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko, eta datuen tratamendua mugatzeko edo horren aurka egiteko eskubidea du. Horretarako, jakinarazpen idatzi bat bidali beharko du udalaren posta-helbidera edo datuak@getxo.eus (Datuak Babesteko ordezkaria) helbidera. Korporazioaren egoitza elektronikoan ere has daiteke izapide elektronikoa. Informazio gehiagorako: [www.getxo.eus/datos](http://www.getxo.eus/datos)

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak eta, bereziki, datu pertsonalen tratamendua ezagutzea eta onartzea, oinarrietan jasotako baldintzetan.





Getxoko Udala lehiaketa hau irabazten duen pertsonarekin harremanetan jarriko da, eta haren berariazko baimena jasoko du haren izen-abizenak, adina eta argazkia zabaltzeko GAZTEAKen, GETXOKO Udalaren webgunean, Gazteria Zerbitzuaren sare sozialetan. Erabilera eta hedapen horrekin ez da ulertuko, norberaren eta familiaren ohorean edo intimitatean eta irudirako eskubidearen Babes Zibilarri buruzko 1/1982 Legeak babestutako eremuan sartzen denik, eta horrek ez du inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik ekarriko erreproduzio edo erabilera horrengatik.

Antolakuntzak beretzat gordetzen du emandako datuen egiazkotasuna egiaztatzeko eskubidea, baita saria eman aurretik saritutako pertsonen adina eta nortasuna ere.

### **Erantzukizuna**

GAZTERIAK beretzat gordetzen du eskatutako informaziorik gabe bidaltzen diren edo hautagarritasun-irizpideak betetzen ez dituzten partaidetzak ukatzeko eskubidea.

GAZTERIAK beretzat gordetzen du deialdi irekiaren arauetan aldaketak egiteko eskubidea, eta behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar dio jendeari.

GAZTERIAK beretzat gordetzen du oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gai, egoki deritzon moduan, jorratzeko eskubidea.

## **Informazio gehiago / Para más información**

944 660 353 / 688 880 985

[gaztebulgoa@getxo.eus](mailto:gaztebulgoa@getxo.eus)



Garrantzizua:

- Saria gastatzeko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, jarri harremanetan gazteria@getxo.eus helbidearekin.
- 2024ko urtarrilaren 31tik aurrera, kontsumitu gabeko saria galdu egingo da.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek eta gazteria zerbitzuak egin ditzakeen aldaketak ezagutzea eta onartzea dakar.
- Getxon erroldatuta ez badago, baina udalerrian bizi ohi bada, gazteria@getxo.eus helbidearekin harremanetan jarri.
- Denda bakoitzeko 20 € gutxienerako gastua eta gehienez 200 €